



NOLAKOA IZANGO DA BEZEROEKIN HARREMANA ?

Gure blogean e-maila eta telefono zenbakia agertuko dira. Horien bitartez gure enpresarekin kontaktuan jartzeko aukera izango dute bezeroek. Enpresak, bulego bat izango du eta bertan 4 langile egongo dira, bi goizez eta beste bi arratsaldez. Horien lana izango da bezeroen zalantzak argitzea eta 12 orduz martxan egongo gara (8:30-20:30). Horretaz gain, batez ere bezero gazteekin pentsatuta, sare sozialak ere beraien galderei erantzuteko bide bat izango direla uste dugu, esate baterako, instagram, facebook, ...



Bestalde, bezeroekin harreman ona eta estua izateko eta bide batez haiek erakartzeko, zenbait promozio egitea pentsatu dugu. Batetik, lehenengo erosketarekin bigarreneko %15eko beherapena lortuko dute. Gainera, hilean behin gure 2 aterki zozketatuko ditugu, bezeroak aukeratutako diseinuarekin. Zozketa hau gure instagrameko kontuan egingo dugu, beraz, parte hartu nahi duten guztiei zuzenduta egongo da. Beste sare sozialen bitartez ere zozketaren berri ematen joango gara, baina instagram bidez burutuko da zozketa, hori baita gazte gehienek erabiltzen duten aplikazioa. Aterkiak eskuratu nahi dituztenek, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Gure kontua jarraitzea
- Argazkiko iruzkinean 2 pertsona aipatzea
- Beraien kontuan gure zozketaren berri ematea



Bestetik, produktuen publizitateaz arduratzen diren ospetsuekin (*youtuberrak, influencerrak, abeslariak, ...*) lan egingo dugu. Hauei, gure produktua bidaliko diegu muxu truk, probatu eta beraien iritzia eman dezaten. Gustatzen bazaie, aterkiari publizitatea egitea eskatuko genieke sare sozialen bitartez beren jarraitzaileen artean. Horrela, beraiak aterkia eskuratuko lukete, eta guk, berriz, gure produktua ezagutzera eman eta bezero berriak lortuko genituzke.

Eta, zer lortuko lukete bezeroek honekin?

- Aterkiaren berri izango lukete
- Erosketa egitera doazenean "beherapen kodea" jartzen duen lekuan jarraitzen dieten ospetsuaren izena jarrita, %10eko beherapena lortuko lukete.
- Beraiak aukeratu ahal izango lukete diseinua.

